

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **2022 urtean aplikatu beharko diren zergak arautzen dituzten udal ordenantza fiskalak aldaketa (2.a eta 5.a). Behin betiko onespena. (Espediente: 2021/23/S893)**

2022 urtean aplikatu beharko diren zergak arautzen dituzten udal ordenantza fiskalak aldaketaren (2.a eta 5.a) hasierako erabakia, 2021eko urriaren 4 egunean Udaltzako Osoko Bilkuran hartutakoa, jendaurrean ikusgai egoteko epea igaro ostean eta horren barruan ez direnez erreklamazioz aurkeztu, aipatutako erabakia behin-betikoa bihurtu da, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak Erregulatzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.3 eta Toki Erregimeneko Oinarrien erregulatuzailea den, Apirilaren 2ko, 7/1985 Legearen 49.c) artikuluan ezarritakoaren arabera (azken hori uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 50. Artikuluarekin erlazionaturik).

Aipatutako 41/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluan eta 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betez, behin-betikoa bihurtu den erabakia oso-osorik argitaratu da eta 2022ko urtarrilaren 1 egunetik aurrera ezarriko da:

#### **“Gaia: 2022 urtean aplikatu beharko diren zergak arautzen dituzten udal ordenantza fiskalak aldaketa (2.a eta 5.a)**

Udal Kudeaketa Arloko Ekonomia eta Zerga Kudeaketa Zerbitzuan ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duen 2. ordenantza fiskalaren eta hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen 5. ordenantza fiskalaren aldaketa izapidetzen ari da, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzeko.

Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Laudioko lurzorua eta eraikuntzen 2021erako balioen txostena onartu zuen 2021/09/14 egunean, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 11.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Horrenbestez, katastro-balio berriak finkatu dira, eta higiezin katastro-balorazioa murriztu egin dela ondorioztatu da. Horrek, berehalako ondorio gisa, zerga-tasa egokitu beharra dakar ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duen 2. ordenantzan.

Bestalde, ondasun higiezin gaineko zergaren ondorioetarako katastroko balioak murrizteak zuzenean dakar zerga horren zerga-oinarria murriztea. Hori dela eta, ekonomia- eta finantza-oreka eta aurrekontu-oreka lortzeko, beharrezkoa da zerga-tasa gorantz egokitzea. Horrela, bilketa gutxienez berdina lortzen da. Gauza bera gertatzen da 5. ordenantza fiskalean, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duenean, katastro-balioan zehaztutako zerga-oinarria murrizten duenean.

Ordenantza fiskalak aldatzeko edota indarrrik gabe uzteko prozedura uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren, Toki Ogasunei buruzkoaren 15. eta 16. artikuluetan ebatzitakoa da. Prezio publiko dagokienez, aipatutako Foru Arauaren 50. artikuluekin bat, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutako prozedura aplikatu beharko da.

Espedientean jasota geratu dira, batetik, Udal Kudeaketa Arloko Ekonomia eta Zerga Kudeaketa Zerbitzuko goi teknikariak 2021eko irailaren 24an emandako txostena eta udal idazkari nagusiak 2021eko irailaren 27an emandakoa.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 22. artikulua emandako ahalmenak erabiliz eta alde zuzenetik Udal Kudeaketa Arloko Osoko Bilkurako Gaiaren Informazio Batzorde Iraunkorraren (Zerbitzua: Antolakuntza Publikoa eta Zerbitzu Orokorrak eta Zerbitzua: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa) irizpena izanda, Osoko Bilkurak hau:

#### EBATZI DU

Lehenengoa. Ematea hasierako onespina 2. ordenantza fiskalaren, ondasun higiezin gainerako zerga arautzen duenaren aldaketari, jarraian azaltzen diren xehetasunekin bat:

Erabaki egin da jarraian adierazten diren artikulua aldatzea:

#### VI. ZERGA-KUOTA

##### **16. artikulua. Aldatu egin da 16. artikulua 2 idatzi-zatia. Hortaz, honela geratu da idatzia**

“2. Ondasun higiezin gainerako karga-tasa ehuneko 0,30ekoa izango da oro har, ehuneko 0,50eko tasa berezia izan ezik, taula honetan adierazten diren erabilerei aplikatuko baitaie.

Hiri-ondasunei aplikatu beharreko karga-tasa zehazteko, katastroko araudian definitutako erabileren arabera, ondasun higiezin sailkapen hau ezartzen da eta erabilera bakoitzerako gutxiengo katastro-balioa zehazten da, eta hortik aurrera tasa berezia aplikatuko da:

KATASTRO-ERABILERA	GUTXIENKO KATASTRO-BALIOA (EUROTAN)	ZERGA-TASA
Industria	880.000,00	Ehuneko 0,50
Merkataritza	230.000,00	Ehuneko 0,50
Eraikigarritasuna	290.000,00	Ehuneko 0,50

Higiezin erabilera bat baino gehiago dutenean, eraikin-erabilari edo gela nagusiari dagokion tasa aplikatuko da.”

Bigarrena. Ematea hasierako onespina 5. ordenantza fiskalaren, hiri lurren balio gehikuntzaren gainerako zerga arautzen duenaren aldaketari, jarraian azaltzen diren xehetasunekin bat:

#### VII. ZERGA-KUOTA

##### **11. artikulua. Aldatu egin da 11. artikulua 2 idatzi-zatia. Hortaz, honela geratu da idatzia**

“2. Zerga kuota izango da zerga-oinarriari zerga-tipoa aplikatzearen emaitza; zerga-tipo hori ehuneko 6,05 izango da.”

Hirugarrena. Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, hasierako izaera duen erabaki hau udaletxeko iragarkien taulan jarriko da ikusgai hogeita hamar (30) eguneko epean, interesa dutenek espedienteaz aztertzea ahal izan dezaten eta egoki irizitako errekamazio eta arrazoibideak aurkeztu ditzaten.

Laugarrena. Jendaurreko erakusketa hori ALHAOn iragarriko da eta epea zenbatzen hasiko da iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera. Halaber, jendaurrean erakusteko iragarkia Lurralde Historikoan zabalkunderik handieneko egunkariren batean ere argitaratuko da.

Bosgarrena. Onspen-erabaki hau behin betikotzat hartuko da jendaurreko erakusketa epean bere aurkako errekamaziorik aurkeztzen ez bada. Errekamazioak aurkeztzen badira, Udaltzaren osoko bilkuran ebatziko dira.

Dena den, behin betiko erabakia edo automatikoki behin betiko bihurtutako behin behineko erabakia eta ordenantzen testu osoa edota ordenantzen aldaketena ALHAOn argitaratuko dira, eta, beraz, ez dira indarrean sartuko 2022ko urtarrilaren 1era arte, edo, hala dagokionean, argitaratu arte.”

2022 urterako udal zerga, tasa eta prezio publikoak arautzen dituen ordenantza aldaketaren behin-betiko erabakiaren kontra, interesdunek administrazioarekiko auzibide-errekurtsoa tartegarri ahal izango dute dagokion jurisdikziopeko salan, ALHAOn erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Laudio, 2021eko azaroaren 26a

*Alkate-udalburua*

*ANDER AÑIBARRO MAESTRE*